

AHOZKO KOMUNIKAZIOA ETA ORATORIA JURIDIKOA



**“JENDEAURREAN ONDO HITZ EGITEN DUENAK BESTEAREKIKO
ABANTAILA DARAMA”**

“Quien habla bien en público, aventaja a los demás”. (A.I. La fuente Zorrilla).

EGILEAK:

**SORAIA GONZÁLEZ ANDRÉ
LORENA FERNANDEZ GARCIA
AINHOA RODRÍGUEZ MENDIZÁBAL**

SARRERA

Oratoria Zuzenbidezko Estatuetan beti eskubide zibilen babesari lotuta dago. Justizia eta Zuzenbidearen defentsa hizlari baten talentu eragilea du oinarri. Bere helburuak honako hauek dira: irakatsi, egiaren eta justiziaren bilaketa eta konbentzitu. Diskurtso juridikoaren erabilpen eta ezagupen egokia, Estatu demokratikoetan beharrezko da. Beharra hau alde akusatzailea eta alde defentsatzailean isladatzen da.

Geroz eta garrantzitsuagoa da entzun- aretoaren aurrean behar den bezala hitzegitea. Edozein egoeretan entzuleriaren aurrean modu egokienean hitzegiten duenak abantaila darama.

Hizlari ona izateko trebakuntza eta pazientzia pixka bat besterik ez da behar. Hizlaria ez da jaiotzen, egiten da. Arau eta teknika batzuen ezagutza eta entzun-aretoaren aurrean modu aproposalan hitz egitea, arlo guztietan kontuan hartzen den profesionalitatearen seinalea da.

DISKURTSO JURIDIKOA

Lehenik eta behin kontuan izan behar da Juristak herritaren interesak defendatzen eta aholkuak ematen dituen pertsona dela. Jurista lanaren barruan zenbait aspektu desberdinak aurkitzen ditugu betetzen duen funtzioaren arabera: oratoria politikoa, akademikoa eta oposatzaile:

- ***Fiskal eta abokatu defendatzaileen*** kasuan, epailemahaia profesionala baldin bada, beren baieztapenak argumentu juridikoen bidez azaldu beharko dituzte. Honetaz gain, zigor eta lan epaiketetan Epaileari beraien pretentsioa egokia eta bidezkoa dela konbentzitu behar diote; Epailea baita ebazpena eman behar duena.
- ***Zinpekoen epaimahaien kasuan***, entzun- aretoa desberdina da, beraz edukia eta azalpenak aldatzen dira. Abokatuak epaimahaiko bakoitzak konbentzitu behar dituzte, epaimahairen sinesgarritasuna eta onginahia lortuz.

- Beste aldetik, ***irakasle funtzioa betetzen duen Juristak***, bere azalpenak ulergarriak eta sinpleak egin behar ditu, bere ikasleak ondo uler dezaten.
- Azkenik, ***Jurista oposatzaileak***, edukiak lantzeaz gain bere komunikatze eta konbentzitze gaitasuna ere zaindu behar ditu. Bere itxura ere epaimahaiak kontuan hartuko du bere balioa erabakitzeke, hau da, aupergia begiratu behar du, segurtasun eta konbentzimendua erakutsiz.

Jurista mota hauek helburu desberdinak duten arren, guztiek jende aurrean hitz egitean kontuan izan behar dute “gorputz komunikazioa” deritzona. Jendearen aurrean hitzegiteak, urduritasuna sor dezake eta urduritasun hori gorputzak transmititzen du, gorputza burua baino espontaneoagoa baita. Hizlaria urduri badago jendeaurreak urduritasuna nabarituko du . Horregatik, aparteko esfortzua egin behar da gorputza erlaxa dadin eta komunikazioan, lasaitasuna eta konfidantza, erakusteko.

Mintzalariak jendeaurreari aurre egitean, modu eraginkor batean hitzegiten ikasi behar du. Helburu honetarako, kontuan hartzekoak dira irizpide hauek, batez ere Auzitegian arren hitz egiteko erabili beharrekoak:

a) Ikus eremua

Hitz egiten zauden bitartean, epailea eta zinpekoa begiratu behar da. Hala ere, kontuan izan behar da, ez dela kontaktu bisuala pertsona berean denbora luzean mantendu behar, osterantzean, jarrera oldarkorra adieraziko dugu. Horretaz gain, epailea edo zinpekoarekin kontaktu bisual ona edukitzeak, ez du bakarrik konbentzitzeko gaitasuna sendotzen, zinpekoen arreta eta interesa erakartzen du.

b) Jarrera eta mugimendua

Gorputz komunikazioa eta bereziki, jarrera, portaerak erakusten ditu: besteei gure iritzia adierazten die. Epaille baten aurrean, jarrerak errespetua eta seriotasuna adierazten du. Ondorioz, gestuak eta, orokorrean ahozkoak ez diren espresioak, ahozko komunikazioarekin bat etorri behar dira.

Jarrera positiboa eta onuragarria kasu hauetan azaltzen dira:

- Beste pertsonarekiko hurbiltasuna
- Kontaktu bisual ona mantendu
- Buru mugimendu bertikalak
- Iribarrea bere neurrian erabili behar da.

Jakitunen iritziz, hitzegiten duenaren eta entzunlariaren artean, oztopo guztiak kendu egin behar dira. Oztopoak honako hauek izan daitezke: auzigelak, mahaia, kontsultarako dokumentuak eta abar. Horregatik, ahal den heinean, Epaileari hurbildu beharra dago, nahiz eta, Estatu Batuetako zinpeko epaitegietan abokatu eta epailearen artean dagoen hurbiltasuna lortzea zaila den arren. Hori dela eta, kontuan hartu behar da, mahai baten atzean egiten dela beti. Hala ere, hizlariarentzat abantaila gehiago dakar zutik eta mugimenduan, bere diskurtso juridikoa ematea.

Postura eta mugimenduen aldaketak arreta erakartzeko moduak dira, baina ezin denean, beste aukerak daude bere diskurtsoarengan adeitasuna erakartzeko:

- Gestuak egin: betaurrekoekin, boligrafoarekin edo beste objektu batekin urduritasunarekin jolasean aritu.
- Mota desberdineko aurpegiko espresioak egin
- Ahots- aldaketak.

Hau da, monotonia ekidin eta arrera erakarri nahi den momentuan.

C) Gestuak

Mezua indartzen eta diskurtsoa interesgarriagoa egiten du. Gestuak neurrikoak izan behar dira eta diskurtsoaren mamiarekin bat etorri behar dira, naturalak izan behar dira .

D) Janzkera eta aspektu fisikoa

Janzkera egokia eta serioa izan behar da. Hizlariak edozer deigarria badu, Epailearen, zinpekoaren eta publikoaren arreta erakarriko du, bere diskurtsoaren orde.

HITZALDIAREN ANTOLAKETA

Diskurtsoa ondo antolatuta egon behar da eta bere egitura sinplea baino sendoa izan behar da. Diskurtsoaren egitura hurrengoa da:

A. Hasiera edo hitzaurrea

Esposizio baten hasiera eta amaiera berezko garrantzia du gure entzutegiareki konektatzeko. Hasierarekin bat:

- Atentzioa erakarri behar dugu
- Edukia aurreratu behar dugu
- Entzutegiaren ongura lortu behar du.

Hiru helburu hauek lortzeko, hizketaldiaren hasieran, honako baliabideak erabili ditzazkegu:

- Aipamenak eta pasadizoak
- Galdera ireki bat
- Egoera baten deskripzioa
- Bizipen propio bat
- Grafiko edo argazki bat
- Datu estatistiko edo kopuru aipagarriak erabili.

B. Garapena

Informazioa biltzen den diskurtsoaren atala da. Bertan argudioak jasotzen dira eta hauek modu egokian uler daitezzen, hurrengo egitura jarraitzea gomendagarria da:

- Baieztapena.
- Arrazoiketa
- Ebidentzia.

Ebidentziak fidagarriak izan behar dira. Horretarako, hauen iturria azaldu behar da. Bere jatorriaren arabera, desberdindu daitezke:

- Gertakizunen adibideak
- Estatistika
- Agintaritezkoa
- Lekukoak
- Dokumentu legalak.
- Objeto bat

C. Konklusioak:

Diskurtso baten konklusioa garrantzitsuena da, hau baldintzatzen duelako azken erabakia. Konklusioa izan daiteke:

- Laburpen bat
- Aipamen bat
- Galdera erretorikoa

HITZALDIAREN HELBURUA: KONBENTZITZEA

Fiskal eta abokatu defendatzaileen kasuan garrantzizkoa da epailea konbentzitzea eta horretarako ezinbestekoak dira hurrengo bi elementuak:

1. Arrazoiketa

Argudio on bat premiazko informazioa azaltzen digu. Argudioa sendoa ez bada ondoriozko kontra-argudio bakarrak hitzaldia guztia bertan behera utzi dezake. Horrela bada argudio garrantzitsuenak aukeratu behar dira. Hortaz, argudio garrantzizkoen aukeraketa egin behar da eta argudio hauetan oinarritu behar dugu gure diskurtsoa. Beste argudio guztiak aldiz, gure diskurtsoa makaltzen dutenak, deuseztatu behar dira.

Argudioak errepikatzea ez da desegokia, era desberdinetan egin daiteke, hala nola, hitzaldiaren hasieran azpimarratu eta konklusioetan azaldu.

Epaiketan zehar kontrako alderdiaren ondoren parte hartzen denean, kontrako alderdiaren argudio ahuletan arreta jartzea da teknika on bat. Modu honetan, nahiz eta argudio bakar bat ezeztatu, aurkariaren arrazoiketa deuseztatu dugun itxura sortzen da.

Argumentuak oinarri ezberdinetan azal daitezke:

- Frogak (lekuko, aditu, dokumentuak, etab.)
- Eginkizunen kalifikazio juridikoa
- Jurisprudenzia
- Doktrinal eta jurista aipagarrien aipamenak

2. Sinesgarritasuna

Abokatuak, beste edozein hizlarien antzera, ez du bakarrik arrazoiketa on bat behar, baizik eta epaileak sinesgarritasuna duen pertsona bat bezala ikustea. Sinesgarritasuna sortzeko oinarriak hauek dira:

- a) Onestasuna: Defendatzen duguna sinistu behar dugu, hau da abokatu on baten funtsezko balorea. Bezeroaren kasua berezkoa egin behar du eta uste sendoekin defendatu.
- b) Kontrako alderdiaren argudioak ezagutu: Epaitegian egiaztatu behar da kontrako alderdiaren arrazoibideak ezagutu eta menderatzen ditugula, iritzi

berdina ez dugun arren. Modu laburrean azaldu behar da haien argudioak eta hauek deuseztatzea izango da helburua.

c) Profesionaltasuna erakutsi: seriotasunez jokatu, ezaguera juridiko sakona, etab.

d) Tankera adiskidetsua baino irmoa.

AZALPEN ETA PRAKTIKARAKO GOMENDIOAK

Sesio praktikoen helburua hitzaldi natural eta arina lortzea da, eta horretarako zenbait kontseilu erabilgarria azalduko dira:

Diskurtsoa praktikatzek geroz eta konfiantza gehiago sortzen du entzutegia konbentzitzeko. Ahal den neurrian jende aurrean hitz-egitea gomendagarria da eta baita norberaren hitzaldiak grabatzea esposizio denbora, estiloa eta argudioak hobetzeko metodo bezala. Gure ez ahozko komunikazioa aztertzeke, aldiz, modu egokiago da norberaren filmaketa. Baliagarria da ere gure diskurtso juridikoa trebatzeko prozesu mota guztietako epaiketak entzutea gure estilo propio garatzeko abiapuntu bezala.

Kontuan hartu beharra dago oharrak erabiltzea hobesten dela, inoiz ez da hitzaldia irakurri behar berehalakotasuna eta profesionaltasuna galtzen delako. Gainera oharretan diskurtso hasiera eta amaiera azaltzeko konfiantzarekin hastea eta aisetasunez bukatzea eragiten du. Esposizioa ezin da irakurketa bat izan, gidoi erraz baten bidez laguntzea da metodo onena, zenbait datu, sententziak, doktrina ... ordea irakurri ahal daiteke.

Puntu honetan aipamen bat egin behar da beldur eszenikori buruz. Beldur eszenikoa ohiko gauza da, eta baita aditua diren hizlarietan ere. Azken hauek ez duten beren beldurra guztiz kontrolatzen, beldurrari ohitzen dira era garrantzi gabeko gauza bezala dute. Entzutegiren aurrean zenbait eta gehiago hitz-egiten dugun heinean beldurra gutxitzen doa, hau da beldur eszenikoa galtzeko modu bakarra.

AZKEN OHARRAK KOMUNIKAZIO ONA LORTZEKO

- Modu positiboan hitz egin.
- Esaldi laburrak eta argiak. Segurtasunez amaitu.
- Isiluneak eduki, baina ez oso nabarmenak.
- Bokal ez luzatu, adibidez: etaaaa, ehhhh
- Entzun aretoa ez du aitzakiarik onartzen
- Gaiak ondo garatuak eraman behar dira, ideiak argi eduki behar dira
- Hutsegite baten aurrean, ez dira gauzak bere onetik atera behar, disimulatu edo akatsa onartu baizik.
- Erantzun arriskutsua duten galderak ez dute informazio lortzeko helburua... Galdera bat beti dauka erantzun bat baino gehiago eta, beraz, guretzat mesedegarria dena aukeratuko dugu guretzat onuragarri den informazioa emanaz.
- Janzkera eta gure irudi globala zaindu behar da.
- Ez da denbora osoan geldirik egon behar, aietasunez mugitu behar da. Baina kontuan izanik bai gelditasuna, bai mugimenduak neurrian egin behar direla.
- Beharrezkoa baldin bada diskurtsoa irakurri daiteke, baina beti ere entzun aretoari begiratu behar da nahiz eta irakurtzen egon.
- Komunikazio onaren funtsa hiru elementu hauek dira:
 - Norberarengan konfiantza izatea.
 - Kontatzen ari dena, kontatu nahi izatea.
 - Eltzun-aretoari azaldu nahi izatea.

“Pertsona izatea zalantzak izatea , eta hala ere, zure bidea jarraitzea da”.

“Ser persona es tener dudas y, aun así, continuar tu camino” Paulo Coelho. Brida.

BIBLIOGRAFIA

- “*Comunicación persuasiva ante los Tribunales de Justicia*” José María Martínez Selva, Catedrático de Psicología. Universidad de Murcia
- “*Cómo hablar en público*” Ed. Deusto S.A. Bilbao, 1997 Janner, G.